

bidegileak



Lourdes Iriondo (1937-2005)

Egilea:

JOXEMARI IRIONDO

Torreako dama

Urrietako Torrea jauregiko bi azkenengo damek, Mikaela eta Tomasa Galardi ahizpek, herriko neskatoentzat eskola bat eraikitzeko utzi zituzten bere ondasunak, 1896 aldera. Baina ahaleginak egin arren, Frantziako Errepublikak bidalitakoek ere ez baitzuten onartu, fraide oblatoak egin ziren jauregiaren jabe. Eta Gabriel Arrue jaun erretorearen eta komentua eta neskatzentzat ikastetxea egiteko garraioan eta auzolanean jardun zutenen ustea ustel gertatu zen, 1903an jauregian sartu ziren lau fraide mezadun, sei mezagabe eta 20 ikaslek mutikoentzat eskola zabaldu baitzuten.

Torreako dama bihotz zabal haien mendekua bailitzan, 1936ko gerratean



Lourdes Iriondo Mujika (1937-2005)

etxea erre egin zuten. Eta goitik behera suntsitutako komentu haren ondoan beste etxe berria egin zuten gero, eta Gipuzkoako Okinen elkarteko buru zen Ramuntxo Iriondo eta Maria Mujika joan ziren han bizitzera familia osoarekin, Lourdesek zazpi urte zituela. Torreako dama bihozbera haien ametsa neurri batean beteko zuen neskatoa Lourdes izan baitzen, Urrietako haurrei eta gaztetxoei parrokiari, ikastolan, kultur etxean eta herrian gogotik saiatu zen



Pilar eta Lourdes

irakaslea, euskal kantuak, marrazki eta irudigintza, eskulanak, ipuin eta antzerkiak eta abar erakutsiz.

Villa Nuestra Señora del Coro izenez bataiatutako etxea bazen ere, urnietarrek *Iriondo-nekoa* deitu izan diote beti familia bat ez ezik leinu bat ere bizi izan den etxeari. Leinua, bai, hogeii batera iristen baitziren guraso, seme-alaba, aitona eta amona, osaba, izeba, neskame eta abar.

Barne-bizitza handiko gaztea izan zen Lourdes ume-umetatik. Eta bere osasun ezak eragotzi izan ez balio, hirugarren munduan behartsuei laguntzera joango zen seguru asko, urte askoan Kongon ari den bere ahizpa Maria Teresa bezalaxe. Baina, hori ezine-

ko gertatu zitzaion bere osasun arazoak zirelako, eta euskal kantaritza eta kulturaren zerbitzuan jarri zituen bere musikazaletasuna eta trebezia, hori beti erosoan izan ez baitzitzaien ere. Besteak beste, bere osasun ahula gehiegizko arriskuan jarriko ote zuen beldurrez zegoen amaren kezkei aurre egin behar izan zien sarritan. Bestalde, gurasoen tzat berandu samar heldu ziren aldaketak bete-betean onartu zituen Lourdesek. Eliza eta kristautasun berri bat eragin zuen Kontzilioak, batetik; eta, bestetik, giro berri bat ari zen esnatzen Euskal Herriko gazteen artean. Eta giro berri horretan buru-bihotz murgildu zen Lourdes, herriko haurrekin, parrokian lan asko eginez, eta euskal kantagintzan, bereziki.

Bihotzez urnietarra

Bederatzi alaba eta bi semeko familia handi hartan bigarrena zen Lourdes, gerra hasi baino hilabete batzuk lehenago jaio zen Pilarren ondoren. Betidanik urnietarra sentitu bazen ere, jaiotzez donostiarra zen, Moraza kalean jaioa, aita gerrara joan zenean ama harantz aldatu zen-eta Etxagüe Jeneralaren kaletik, harik eta Urnietan bizitzera joan ziren arte.

Nolanahi ere, hiru etxe ezberdinetan jaio ziren Iriondo-Mujika hamaika senideak. Ahizpa zaharrena, Maria Pilar, Donostiako Etxagüe Jenerala kalean jaio zen (1935); Lourdes (1937), Jesus Mari *Txiki* (1938), Maria Teresa (1939), Maria Koro (1940), Jose Mari (1941) eta Maria Anjeles (1943), Moraza kalean. Eta lau

gazteenak, Ana Mari (1944), Mari Karmen (1946), Maria Fatima (1947) eta Maria Jesus (1950), Urnietako etxe berrian.

Lourdesek zazpi urte zituen familia Urnietan bizitzera joan zenean, eta ez da harritzeko hark bere burua urnietartzat sentitzen zuela esatea, haurtzaroko urte eder asko hantxe iragan zituen-eta. Erabat bizitzera joan baino lehen ere ezaguna zuten gainera Urnietako herria, Donostia udatiaz betetzen zenean, hango kalezuloak utzi eta kanpora joaten baitziren udaldirako, eta azkenengo bi urteetan Urnietako Villa Atalaia etxera. Bestalde, garai hartan oso herri txikia zen Urnietak —1.600 bizilagun gutxi gorabehera, orain 6.000 inguru—, eta hango haur eta gazte jendearen hurbiltasuna eza gutu eta haiekin ondo baino hobeto pasatu zuen, hiriburuko uda-girotik urrun.



Tere, Jesus Mari, Lourdes eta Pilar



Iriondo-Mujika familia



Lourdes, Pilar eta Tere

Gaixoaldi larria

Donostiako Teresiana mojen ikastetxera joan ohi zen ikastera, Moraza kalean bizi ziren arte, ahizpa zaharragoarekin eskuz esku. Eta gero, 44ko udaberrian Urnietara aldatu zirenean, berriz ere mojen ikastetxean jarraitu zuten, herriko Colegio de la Presentación ikastetxean. Baina hangoa utzi eta berriro Donostiako ordena bereko mojetara bidali zituzten ahizpa biak, Duque de Mandas kalean.

Ikastetxe ona zen, familia hari zegokion beزالakoxea. Baina aurrekoetan ez ezik, ikastetxe horretan ere ez zuten euskal giro handirik aurkitu, ikastetxe haietako mojak frantsesak baitziren, eta frantsesez hitz egitera behartzen zituzten gainera ikastorduetan, eta jolaseko garaian ere bai sarri.

Hamasei-hamazazpi urtera arte elkarrekin ibili ostean, mojetakoak amaitu eta erizaintza-ikasketak egitera joan zen ahizpa, eta Lourdesek bakarrik jarraitu behar izan zuen urte batzuetan.

Langile aspertezina eta baldintzarik gabe laguntzekoa zenez, beste bide bat hartzea erabaki zuen gerora begira: hirugarren munduan pobre eta behartsuen laguntzaile izan nahi zuela, eta horretarako Gasteizko *Misioneras Seculares* elkartearen formakuntza etxean sartu zen 1956an, ikasi, errezatu eta bere misiolari-lanetarako prestatzeko asmoz. Han ezagutu zutenek diotenez, neska-



Lourdes kantaldi batean, 1964

txa saiatua eta biziki atsegina zen, eta ahal zuenero bere pianoaren aurrean eseri eta kantari aritzen zen, etorkizunerako prestatu nahirik.

Nahi baino gutxiago iraun zion ordea amets handi hark, urtebete inguru bakarrik. Ordura arte ikasten, bere lagunekin jostatzen eta kiroleetan ere —etxeko pilotalekuan palaz hasten zenean hura ez zuen inork atzeratzen— nekaezina zen neskatoak bihotzeko eritasun larria sentitu zuen. Bihotz ona eta handia bai, baina *Estenosis mitral* bihotzeko eritasuna harrapatu zuen, hotzak jota-edo, eta ebakuntza azkar egitera behartu zuten 20 urteko (1957)

neskatxa sasoikoa. Eta huraxe izan zen bizi-moduak eman zion lehenengo zartako ikaragarria, ezbairik gabe.

Halaxe, hegoaldean ez baitzen halakorik egiten artean, Pariseko zirujau Monod doktore ospetsuarekin hitz egin zuten, eta Kanboko erietxe batera eraman eta bertantxe operatu zuen. Nekez egin zitekeen halakorik orduan, baina familia onekoa izateak hainbeste zezakeen, gutxienez ere. Handik aurrera bere burua eta bizimodua zuzen eta zorrotz zaindu beharko zuela agindu zioten, bestela munduan gutxi iraungo zuela-eta. Eta hartan amaitu ziren Lourdesen ikasketa eta hirugarren munduko behartsuei laguntzeko amets ederrak.



Lourdes kantaldi batean, 1964

Musikazaletasuna etxetik

Musikarekin eta kantuarekin lotuta jarraitu zuen ordea aurrerantzean ere, jakina. Zaletasuna etxetik zetorkiola esan ohi zuen. Izan ere, kantari on-onak ez baina familiako bile-retan-eta kantu zaharrak berritu eta abestea asko gustatzen zitzairen gurasoei, eta saio ederrik egiten zuten jaiegunetan, eta familia-ko ospakizunetan. Anaia Joxe Mari ere inoiz ausartu zen Donostian urtero egin ohi zen kantu-lehiaketa batean parte hartu eta bere balioak erakusten jendearen aurrean, erdibidean geratu bazen ere.

Baina etxeko beste guztiak baino gehiago zen Lourdes musika kontuetan. Ahots indartsua eta bikaina zuen, gozoa eta garbia. Musika eta kanturako zaletasun berezia, berriz, ume-umetan hasita zuen. Gaztetxoa zela Urnietan bizitzera joan zirenean, herriko taldeekin parte hartzea gustatzen zitzaion. Eta herriko txistularien bandarekin sarritan ibili zen batera eta bestera, ahizpak bere erizain lan berrian irabazitako lehenengo soldatarekin erosi zion txistua luzituz.

Baina ez zen edozerekin konformatzen zen horietako gaztea, eta herriko abestalde eta txistulariekin saiatzea aski iruditzen ez eta Opera eta kantua ikasten hasi zen buru-belarri Donostiako Mari Paz Urbieta andereñoaren akademian. Zazpi urte handi egin zituen astero-astero Donostiara joanez. Baina amets handi hura ere goitik behera etorri zitzaion, eta

dena utzi behar izan zuen bihotzeko eritasun gogorrak jota. Osasunez eta amets handiz gainezka zegoen gaztearentzat gogorra izan zen huraxe, eta zer esanik ez haren familiarentzat.

Utzi, ez zuen dena utzi ordea. Hilabete batzuk bere burua zaintzen iragan ostean —behar adina inoiz ez, berak esan ohi zuenez—, berriz ere lanean hasi zen, herriko parro-kian hurrei dotrina erakusten, edota Zugasti jaunari laguntzen, herriko neska-mutikoekin eskolan eta aisialdiak antolatzen, eta abar. Eta batez ere, lotura berezia zuen bere gitarra maitearekin, «Gaixorik egona naiz luzaroan, ta bitartean ikasketak utzi beharrean aurkitu nintzan. Urtebete da gitarrarekin ekin niola, Cecilio Espada irakaslearekin», aitortu zuen garai hartan egindako elkarrizketa batean (*Z. Argia*, 1965eko ekaina). Jostailu eta lagungarri maitea zuen aitak opari ekarritako gitarratxoa, eta haren lokarriek zerbait berezia omen zuten bereztzat. Hura besapean hartu eta akorde batzuk ematen hasten zenean, bere gaixotasuna eta ahuleziak zeharo ahazten zitzaizkion. Eta bere bakartasun luzean kantu batzuk prestatzean, «Nere gitarratxoa lagun dedalarik/ herriz herri nabil ni beti kantari», abestu zuen, pozik. Familia oneko alaba izanik


ere, inoiz ez zen ausartu bere egoeraz baliatuta gurasoei gitarra bat eskatzen, etxean beste senide asko ere bazirela-eta. Baina bere nahiaren berri jakin zuenean laster erosi zion aitak, 1964ko urtean, oraindik ere Torreako sotoan baztertuta omen dagoen gitarra hura, harentzat sendagarri ona izan zitekeela pentsatuta. Gero, «Orain lotara ere berarekin joaten naizela esan diteke», aitortu zigun.



Ama Maria seme-alabekin.
Atzean zutik Lourdes eta Pilar dantza taldearekin

Lehenengo kantak

skotxo esatea izan daiteke agian, baina Lourdesen hasierako kanta haiek bazutela esango genuke 62-63ean modan ibili zen Soeur Sourire moja kantari frantziarraren antz pittin bat, behin baino gehiagotan entzuna izango zuen-eta, seguru asko. «Abesten dizut, Jauna» edo «Arren, Jauna» bezalakoetan, huraxe gogorarazten zigun behintzat. Baina aldi berean, euskal kantu zaharren ukitua eta kutsua ere nabaria zen hark abesten zituen «Aurra seaskan», «Amatxo laztana», «Kitarratxoa eta euskera» eta hola-koetan.



Lourdes, 1964ko jaialdi batean

Bestalde, kantua eta kantatzea, arnasa hartzeko uneoro behar zuen haizea bezain beharreko zerbait ziren harentzat. Baina ez zuen kantatzen kantatzeagatik. Bere mezu garbia eta sakona eskaini nahi zien entzuleei, mezu sendoa, sarkorra eta ahal zuenik hunkigarriena. Eta berak gozatu ahala besteei gozarazi nahi zien, euskara eta euskal kulturaren kontzientzia erraietan zeramaten abes-

Lete, Garin, Arantza, Lourdes, Jone
eta Elene, Azpeitian, 1966an



tien bidez. Baina, «Nik ez det famarik desio, etzait batere ajola. Nik euskal publikoak eskatzen didalako abesten det», esaten zuen. Eta euskal publiko harekin nahi zuen lotura eta harremana oso ondo lortzen zituen, noski.

Jakina da, bestalde, Lourdesek berak egin eta moldatu zituela bere lehenengo kantuen letra eta musika. Baina Urnietan apaiz eta organista zegoen, eta Iriondo-Mujika familiarentzat oso etxekoa zen Joseba Zugasti jaunak ere lagundu ohi zion, inoiz letrak euskaratuz, edo bere musikari konponketa batzuk eginez. Urnieta-ko eta Hernaniko bere adiskide batzuk ere saiatu ziren hari laguntzen. Eta hasierako bere kantutegia osatu zuten beste ale batzuk, berriez, batek eta besteak euskaratu edo moldatzen genizkion, ahal genuen bezala.

Kanturik gehienak berak egin zituen, eta ez omen zitzaion asko kostatzen gainera, etxean

bakarrrik eta, «hasarre xamar nagoenean, gitarra eta magnetofono hartu, ta abestuz abestuz sortzen ditut» erantsi ohi zuen-eta.

Bestalde, Lourdesen gurasoak donostiarrak eta euskaldun peto-petoak ziren (aitona-amonak Urrestilla eta Aizarnakoak, hain zuzen), baina euskararekin izan zuen zenbait arazo herriz herri kantari hasi zen garaian. Eta asko sufritu zuen, etxean ikasitako euskara ahaztuxea zuelako, zoritxarrez. Izan ere, haienean euskaraz hitz egiten bazen ere, gaztelera gailendu zen familiako gazteen artean, nahiz eta amak Zaldibia, Ataun, Aizarna, Ezkio eta holako herri txiki-
kietako neska zerbitzariak ekartzen ahaleginak egiten zituen. «Baina haiek lanera eta irabaztera, eta gure kontura gaztelera ikas-
tera etortzen ziren askotan», esan zigun inoiz Lourdesek.

Estilo berezia

Ez zen musika mota bakarrarekin konformatzen Lourdes. Mirespen berezia zuen Maria Callas eta garai hartan moda-modan zeuden Gilbert Becaud, Françoise Hardy, Charles Aznavour, Jacques Brel eta holakoentzat; eta haien diskoak sarritan entzuten zituen etxean. Hegoameriketako musika ere biziki maite zuen; eta gero, urteak joan eta protesta-kantuaren bideetan buru-bihotz sartu zenean, Atahualpa Yupanqui, Raimon, Guillermina Mota, Joan Baez, *Ez dok amairuko* bere taldekideen kantuak eta hola entzuten zituen batez ere.

Lourdesen estiloa eta mezua, guztiz bereziak zirela esan dugu, bere-bereak. Edukiz sakona zen, argia eta apala, lehenengo urteetan gozoa eta gogorragoa gero, kantu ezia eta gogorra biak nahasian ematen saiatzen bazen ere gehienetan. Baina «Gogortasun hori ez da nere

abestietakoa bakarrik. Beharbada, lehenago abestia gauza polit bat bezela kontsideratzen zen, eskakizun haundirik gabeko gauza arin bat bezela. Gaur, berriz, eskakizun haundiak ditu herriari kantatzen zaion abestiak. Beste kontzientzi batekin kantatzen da gaur. Herriaren prolemak kantatzen dira... Gaur inoiz baino gehiago, abestia herriari bere prolemataz hitz egiteko modu bat da», zioen 65eko elkarrizketa batean. Era askotakoa, bai, baina «Beatles taldea ikaragarri gustatzen zait, baina zarata handiko abestiak ez ditut batere maite» erantsi zuen, bere gustuen mugak argi eta garbi utzi nahirik.

Lourdesen kantagintzari zegokionez, lanak ikaragarri erraztu zitzaizkion 1966 urteaz gero, moldatzen zituen abestirik gehienentzako hitzak gero bere senar izan zen Xabier Lete poeta handiak idazten zizkion-eta, oztopo guztiak gaindituz.



Xabier eta Lourdes Oiartzunen, 1966



Zarauzko Zineman kantari, 1966an

Lehenengo kantaldiak

Gaixoaldian gitarra jotzen ikasi eta kantu batzuk egin eta prestatzen zebilela, Andoaingo lagun batzuk etorri zitzaizkion behin herriko ikastola berrian diru premia larrian zeudela eta ea kantatzera joango zen esanez. 1964ko udazken-negurako bazituen dozena erdi bat kanta edo gehiago, eta baietz erantzun zien hitzetik hortzera, pozik joango zela.

Inork uste ez bezalako arrakasta izan zuen auzo herriko jaialdi hartan; eta gero, Tolosan eta Billabonan kantatu zuen hurrena, lagunek eskatuta han ere. Baina Lourdesen egiazko hasiera geroxeago etorri zela esan genezake. 1965eko maiatzeko lehenengo igandean *Gazteriaren eguna* ospatu nahi eta, urtero bezalaxe, herriko gazte eta zaharrentzat jaialdi eder bat prestatu nahi zuten Aizarnako gazteek. Eta, halabeharrez, Lourdes Iriondo gonbidatu zuten han kanta zezan, herrian apaiz zegoen Mikel Atxaga urnietarraren bitartez.

Gazteak gaztea nahi izaten, eta Urnietako neskatxa beltzaran eder hark ahoa bete hortz utzi zituen maiatzeko arratsalde eder hartan Aizarnara bildu ziren zaharrak eta gazteak.

Loiolako Irratian kantari, 1965eko maiatzean

Loiolako Herri Irratian

Sekulako arrakasta izan zuen, bai. Eta, egia esan, ondo harritu gintuen gu ere. Lehenxeago eza-gutu genituen Soroak laukoaz eta Mitchel Labegueriez gogoratu ginen, bat-batean. Eta gero, ausardia ere bazen baina, hurrengo egunean Loiolako Herri Irratian kanta haietako batzuk grabatu nahi al zituen galdetu/eskatu genion, lotsa handirik gabe. Baietz erantzun zigun asko pentsatzen egon gabe eta, halaxe, arratsalde hartan abestu zituen lau kantu ederren uste-koak grabatu genizkion astelehen goizean, gure poz eta irrati-entzuleen atseginerako. Hura zen mahatsa, hura! Astearte goizeko irratsaioan hasi ginen irrati-z ematen, eta handik aurrera egunean hiru-lau bider eskaintzen genizkien gure entzuleei Lourdesen perlak.

Hala ere, eromen hartan goralmen asko eta kritika batzuk ere izan genituen. Norbaiten ustez, ez zen zilegi «gitarra española» batekin euskaraz kantatzea. Eta Lourdesen kantu



haiek ez omen zutela gainera euskal musikagile on batek egindako lanaren mailarik ere esan ziguten.

Ez jakin arrazoi zuten ala ez, baina irrati-entzuleen iritziz harrigarri ondo kantatzen zuen «aingeru berri» hark, eta bost axola guri gainera goen esamesak. Uste gabeko altxorra aurkitu genuen Aizarnan, Urnietako kantariari esker; eta horixe nahiko Fraga Iribarne jaunak hiru hilabete barru irrati ixteko mehatxupear bizi ginenontzat. 1965eko uztailaren 22an itxi zuen azkenean, baina izar berri hura batera eta bestera zebilen Euskal Herrian zehar, euskal kantagintza berriaren norabideak finkatuz.

Han eta hemen, jaialdi askotara, gehiegitara eramane nahi zuen jendeak. Eta, «Herri askotatik hotsegiten didate abestera joan nadin. Inor ez dedila hasarretu, baina ezin naiz denetara iritsi», esan zuen (Z.Argia, 1965.06.14).

Zizurkilen eta Asteasun

Hogeita hamabost edo berrogei jaialditan kantatu zuen 65eko uda eta udazken hartan, entzuleak bere abestien egarri irrikatzen ikusten zituen-eta. Eta jaialdiz jaialdi zerabilen zoramen harrigarri hartan gutun asko ere jaso zuen abesten zuen herrietatik, ondo kantatzen zuelako zorionak emanez, bere abestien letrak eskatuz, eta baita bat baino gehiago zeharo maiteminduta uzten zuelako ere, seguruenik.

Hasiera distiratsua eta harrigarria izan zen Lourdesena. Hala ere, ospe berezia eta aipamen asko izan zuten urnietarraren bi kantaldi azpimarratuko ditugu hemen, labur beharrez, orduko euskal kantuzaleen artean oihartzun berezia izan zuten jaialdiak. 1965eko maiatzean eta uztailean Zizurkilen eta Asteasun ezustean egin zituen bi agerraldi, hain zuzen. Maila handiko bi bertsolariren omenez,



Laboa eta Basarriren erdian. Zarautz, 1966



Arantza, Lourdes eta Joxe Mari, Zizurkilen, 1965ean

eta bertsolarientzat bereziki antolatutako jaialdiak baziren ere, ahogozo ezin hobea utzi zuen bietan ere Urnietakoak.

Pedro Mari Otaño omendu zuten Zizurkilen, 1965eko maiatzaren 9an, horretarako egun berezia antolatuta. Juan Mari Lekuona izan zen hizlari, meza nagusian. Eta ondoren, Otañoren irudia herriko plazan ezartzea, bertsolariek Errekaldeko semearen goralmenak egiten zituztelarik. Eta hango txaloak eta goralmenak, hango eromena, bere gitarra hartu eta Lourdes apal eta dotore, «Pedro Mari Otaño, gizon trebea/ Bertsolaritzan berriz paregabea» kantatzen hasi zenean! Bazkalondoan, aurrean begira-begira zeukan Nemesio Etxaniz apaiz buruzuriaren zoramena ere ikustekoa zen, begiak busti-busti eginda,

Otañoren gorantz Arizmendi andereak idatzitako bertsoak berriro kantatzen hasi zenean. «Zerutik jeitsitako aingeruren bat al da hau?», esan zuen bertsolari ezagun batek.

1965eko uztailan, berriz, herriko seme Pello Errotaren omenez kultur astea antolatu zuten asteasuarrek. Eta, besteak beste, bertsolarien saio berezia herriko plazan, uztailaren 11n. Bertsolariak nor baino nor ari zirela, halako batean, urnietarra azaldu zen, gitarra galtzarpean, eta entzuleak ahoa bete hortz utzi zituen kantari hasi zelarik:

Nik abestu nai diot Pello Errotari/
euskaldun bertsolari izandu zanari.
Sentimendu sakonak ta bertso ugari/
Euskalerrri onetan zor zaizka berari.

Kantaldietan murgilduta

Urte mugitua izan zen Lourdesentzat 1965eko urtea, haren gurasoak guztiz kezkatuta bazeuden ere bere osasun arazoak zirela eta. Urtean dozena erdi bat kantaldi nahikoa izango zituela pentsatuz hasi zen, baina handik eta hemendik etengabe deika ari zitzaizkion, eta berrogei bat kantaldi eman zituen gutxienez. Gehiegitxo osasunez urri zebilen batentzat. Hurrengo urtean, 1966ko urtarrilean, Hernanin eta Donostian egindako jaialdien ostean, «Mari Lourdes Iriondok ez du iñoren bearrik kitarra artu ta zoragarri abes- teko. Erriz-erri dabillkigu, eske guztiei



X. Lete, Lourdes eta M. Laboa. Bera, 1967

erantzun eziñaz», idatzi zuen jaialdi biak ikusi zituen kronikariak *Z. Argia* astekarian.

Ekarpen bikaina eta aurrerakoia izan zen Lourdesena euskal kantagintza berriaren alo-

rrean. Eta garai hartakook nekez ahaztuko dugun arrastoa utzi zuen ibili zen tokietan. Harri eta zur uzten gintuen bere saioak entzutera joaten ginen bakoitzean. Mitchel Laberie jauna bera ere txundituta utzi bide zuen Donostian ezagutu zuen batean, eta «gure kantagintzaren etorkizuna ondo ziurtatuta dago holako kantariekin», esan zuen.

Oztopo handiak izan zituen zentsurarekin, *Nere herria, Askatasuna zertarako?, Lin-Pan mendian, Ez gaude konforme* eta holakoak jaialdietan kantatzeko aurkeztu behar zituen bakoitzean. Eta, zenbat aldaketa/konponketa egin behar izaten zuen paperak alde aurreko zentsurara bidaltzeko garaian!

«Euskal Herriaren nobia»

Oztopoak oztopo, Euskal Herriko herri eta auzo gehienetara heldu zen ordea. Esate baterako, 1967ko urtean, 170 jaialdi eman zituen, berak jasotako oharren arabera. Eta horietako asko *Ez dok amairu*-ko beste kantariekin batera eman zituen. Beste asko, berriz, bakarrik.

Lourdesi ez zitzaizkion asko gustatzen holako deitura eta epiteto arraroak; baina 1966an Bilbon izandako jaialdi batean ikusita, «Euskal Herriaren nobia» deitu zion Gabriel Arestik, haren itxura ederraz liluratuta. Luis Iriondo azkoitiarrak, berriz, kantari amerikar entzute-suarekin parekatu zuen, «Euskal Herriko Joan Baez» deituz. «Izar berri bat sortu da gure musikaren zeru-sabaian!», erantsi zion bere kronikari (*La Voz de España*, 1966ko abendua).

B. Lertxundiren familiarekin





Ez dok amairu Bilbon, 1966



Ez dok amairu eta A. Yupanki

Ez dok amairuren musa

Lourdes Iriondori eman zaizkion deituretan egokiena eta egiena hauxe dela uste dugu, talde mitikoaren historiari pittin bat erreparatuz. Izan ere, musa, amabitxia, aitzindaria, babesa, laguna, itzala, aingerua, edozer izan zitekeen zinez, bera zen-eta taldeko lehena eta taldean ezagunena. Horrez gainera, plaza eta antzokietan gitarra batekin eta bakar-kak aurkezten zen emakume bakarretakoa zen garai hartako Euskal Herrian. Eta hori ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula, ez horixe!

Hirurogeiko hamarraldian euskal musika mugimendu berriaren definiziorik zehatz eta argiena, eta gure kantagintzaren jaiotza eta norabideak hobekien finkatu zituen *Ez dok amairu* izan zen, seguru. Eta sekulako ilusioa eta bizipoza sortu zituen hemengo kantuzaile eta euskaltzaileen artean, 1966ko lehenengo hilabeteetan, premian geunden-eta.

Eta Lourdesek behin-behineko eragina izan zuen, bai taldearen sorreran, bai euskal kantagintza berriaren alorrean. Esan eta idatzi direnak askotan besterik badiote ere, haren babesean eta ildotik hasi zen euskal kantari talde sendo bat antolatzeko asmoa, lehenengo bilerara Zarautzen egin zelarik (1965.10.13), Lourdes eta Joxe A. Artzeren eskariz. Handik hamabost egunera, gurean bildu ginen, Azpeitian; eta 1965eko azaroaren erdian, Donostiako taberna ezagun bateko sotoan. Hantxe ziren ordurako herrietako jaialdietan eta dantzale-

ku ezagunetan euskaraz kantatzen zuten hainbat kantari ezagun.

Ofizialki 1966ko martxoan plazaratu zen talde hartan maila handiko kantari ez ezik taldeki-deen animatzaile, han eta hemen antolatzen ziren jaialdien koordinatzaile eta bideratzaile, eta taldeko idazkari izan zen Lourdes. Edota jaialdi bakoitza amaitzean kontuak egin, oharrak hartu eta gorde, eta hurrengo baterako egin beharreko zuzenketak egiteaz arduratzen zena, lan eskeragaitza eginez. Lan eskeragaitza, baina behar bezala inoiz eskertu ez geniona, nahiz eta berak ez zukeen onartuko seguruenik inork kontu hauetan muturra sartu eta bere izena ahotan erabiltzerik. Taldeko jaialdi bakar bat bera ere ez zuen huts egin, bakarka kanta zezan askotan gonbidatu bazuten ere.

Horrelaxe, etenik gabeko lanean joan zitzaizkion urnietarrari zazpi urte eder, eman eta eman. Eta gero, 1972ko urtearen azkenean *Ez dok amairu* taldea desegin zenean, kantari haietako bakoitzak bere bide aldapatsuari heldu zion, berriro herriz herri, inoiz taldean eta besteetan bakarrik kantatuz. Lourdes Iriondo eta Xabier Lete, iparraldean antolatu zuten *Zazpiribai* ikuskaria prestatzen ikusi genituen, 1973ko lehenengo hilabetetan, Benito Lertxundi, Pantxoa eta Peio, Pantxika Erramuspe, Iñaki Urtizberea, Ugutz Robles-Arangiz, Manex Pagola, *Argiako* Loli Ansa dultzainajolea eta soinu-lariak eta abarrekin. Baina hiru-lau hilabete-ko iraupena bakarrik izan zuen ikusi eta entzuteko guztiz atsegina zen elkar-lan eder hark.



Lourdes eta Xabier kantari



Lete, Valverde eta Lourdes kantari



Baga, Biga, Higa 1971n



Lourdes Iriondo Iruñean, 1967an



Lourdes jaialdi batean



Anaia Jesus Mariren ezteietan familia osoa

Gizarteari kritika

Inoiz ez zen beldurtu urnietarra zerizkion kritika zorrotza gizarteari egiten. Eta batera eta bestera, arnasa hartzeko astirik gabe herri herri zebilela, «Hitzak dira hitzak/ haizeak daramazkienak» kantatu zuen askotan, ausart eta ozenki. Eta Lourdesen osasun ahulaz ahaztu ginen guztiok. Eta berak, berriz, «Gure telefonoak dei guztien berri emango balu, zenbat gauza ez lituzken esango!» idatzi zuen. (Z. Argia, 1967). Eta, «hor goaz gitarra besapean hartuta, batera eta bestera. Hor doaz Julian Lekuona, eta Lazkao Txiki, eta

Arantxa Esnaola» zioen, kezka beteta. Beldur baitzen lehentxeago edo geroxeago amildegira eroriko ginela horrela, eta «gure herriak bizirik eta sendo mendeetan zehar iraun dezala nahi baldin badugu, garaia da oraintxe mila jostaketa polit eta txoro bazterrera utzi eta egitazko laguntza praktiku eta zabal bat eskaintzeko. Orain gure eginkizuna serio hartzen ez badugu, eta gure izatearen defentsan gorputz eta arima osoa jartzen ez baditugu, euskera laixter hil egingo da. Gezurrezko Kijote ergel batzuk geralako hilko da» salatu zuen.

Azkenengo kantaldiak

Diktadore zaharra 1975ean hil eta demokrazia-eguzkiaren printzak argitzen hasi orduko xe, berriz ere gogotsu hasi zen Lourdes, bere senar Xabier Lete, Antton Valverde eta Peio eta Pantxoarekin batean, bere errepertorioan kantu zaharrak eta berriak hartuta, edo *Korteetako parodia* deitu parodia barregarri batekin, herriz herri, garai eta egoera berri baten atariko oihartzuna zekartelarik. Inoiz ez ditugu ahaztuko 1976ko udan bonbaz lehertu zuten Loiolako Herri Irratiaren alde emandako jaialdi hura, 1976ko irailean Lourdesek eta Lupek Trinidadeko plazan eman zuten kantaldia, 1978ko maiatzean Xabier Lete, Antton Valverde, Pantxo eta Peiorekin batera Galarreta pilotalekuan eman zuen azkenengo jaialdi ofiziala, eta luzatzeko beldurrez banan-banan aipatzerik ez dagoen beste hainbat saio.



Anaia Joxe Mariren ezteietan. Erdian Agustin Rodriguez apaiz semebitxia

Bestalde, egia da hemengo kantu eta jaialdi giroa erabat aldatu zela urte haietan. Eta aspertu/ desanimatu zelako, edo hogeitau urte lehenago bezalaxe osasun arazo larriak zituelako, jendearen aurreko saioak behingoz uztea erabaki zuen, Madrilan egindako ebakuntza gogorraren ostean.

Uzta bikaina eskaini zion Lourdesek Euskal Herriari urteetan zehar, jaialdi jendetsuetan txalo eta goralmenak entzunez. Baina txaloak eta oroitzarreak bere baitan ondo gorde eta zerbait gehiago nahi zuen «gaxoaldia- ren ondoren, lasai eta patxaraz bizitzeko, irakurtzeko, pentsatzeko, herriko haurren- tzako ipuin eta antzerki-saioak idazteko eta azkenengo dozena bat urtean izan ez dudan patxaraz bizitzeko». Baina osasunez urri ibili arren, «Heriotzaren irudia ez da sorpresa



Lourdes eta Xabier, ezkontza egunean.
Ezkerrean Bergaretxe osaba apaiza. 1968.10.11n

bat niretzat, eta ez nau beldurtzen. Bizitzen jarraitzeko gogo daukat, eta etorri behar duenean etorriko da heriotza ere, eta ez dago hemen zereginik. Gainera, heriotzaren ideia ez da berdina sinesmendumenezat eta sinesgabeentzat. Eta gauzak lasai hartzen ahaleginduko naiz», zioen bere irribarre gozoa galdu gabe, berak katekesiko neskatoei aitortu bezala «25 urte elizatik urruti ibili ondoren». Bazekien ondo lanak, oinazeak eta sufrimenduak asko erakutsi ziela, eta ez zuen geroaren esperantzarik galdu nahi.



A. Valverde eta Lourdes kantari. 1973

Ikastolan eta parrokian

Tolosako Izaskungo Andre Mariaren elizan ezkondu zen, 1968ko urriaren 11n, *Ez dok Amairu* taldean ezagutu, eta gero bere lanetan eta, batez ere, bizitzako sufrimendu eta pozaldietan lagun izan zuen Xabier Leterekin. Ez zuten haurrik izan, medikuak halaxe agindu zienta; baina ez omen zuen beharrik ere sentitu, eta «hortik ez nago mugatuta. Alderantziz, horrela herriko haur guztiekin ibiltzen naiz, denei laguntzen saiatuz», aitortu zuen. Umezale porrokatua izaki, bere ilobak eta Urnietako haurrak erruz maite zituen Lourdesek. Eta haurrekin jostatzeko, haurrak hezteko, eta haur nahiz hazixeagoak ere bere ingurura gozo erakartzeko adur berezia zuen. Urnietako neskatoekin lan bikaina egin zuen 1960an, eta baita 78an kantatzeari utzi zionean ere. Abesti zahar eta berriak erakutsi zizkien, antzerki saioak prestatu eta egin zituzten herrian, Domund egunean munduko haur behartsuen aldeko kabalgatak antolatu, indioz edo txinoz jantzita, gitarra jotzen eta dantzari erakutsi, inguruetakoko mendietara ibilaldiak antolatu, gutxienez urtean behin Gipuzkoako herri bat bisitatu, bazterrak ezagutu... Guzti horretan lagundu zien Lourdesek herriko haurrei. Horrexegatik, «Gure haurtzaroa gozatu eta erabat aldatu zuen Lourdes Iriondok» idatzi zuen Isabel Oyon Gorrotxategi andereak, esker onez beteta.

Urnietako *Egape* ikastolakoek eskatuta, han ere lan ederra egin zuen, neska-mutilei eus-

kal kantuak, marrazkiak, plastika eta eskulanak
erakutsiz, lankide, ikasle eta gurasoek hileta-
koan jarri zuten eskela hartan aitortu zutenez:

Irudikatzen artista zinen,
plastika zenuen irakasten;
zuk marraztutako irudi ederrak
Egapen dira ikusten.
Baita abesti ta ipuin politak
zuk zenizkigun antzezen.
Egin zenuen guztiagatik zaitugu,
Lurdes, eskertzen.



«Jolastu, dantzan egin eta kantatu besterik ez
zutela egiten salatu» bazituzten ere inoiz, ha-
ren ikasle eta lagun izan zen bat baino gehiago
gogoratuko da orain «Urrietako haurrak pri-
bilegiatu hutsak izan zirela Lourdes Iriondori
esker» (*Berria* 2005.12.30, Garbiñe Larrea).

Urrietako hurrekin antolatu zuen *Buruntza*
antzerki taldearekin ere lan bikaina egin
zuen, saioak idatzi, prestatu eta erakutsiz.
«Antzerkia beti gustatu izan zait; baina une
hartan ez zegoen ezer umeentzako, eta labu-
rrak eta luzeak, obra pila idatzi nuen. Bi edo
hiru urte pasa nituen hurrekin antzerkia
egiten» (*Eguna*, 1987.07.30).

Obra horietako batzuk argitara emanda dau-
de. Hala nola: *Martin arotza* eta *Jaun Deabrua*
(Gero, 1973), *Sendagille maltzurra* (Gero, 1973)
eta *Buruntza azpian*, edo *Dena hankaz gorako*

Lourdes ahizpa eta ilobekin etxean

lurralde (Gero, 1975). Beste batzuk, berriz, helduentzat idatzi zuen *Fabrika berria* satira eta abar, hark utzitako karpeta-aren batean ondo gordeta izango dira, ziur.

Haur Literaturaren alorrean, *Asto baten malura* (Gero, 1973), *Hego-haizearen ipuinak* (Gero, 1973), eta *Lotara joateko ipuinak* (Erein, 1983) idatzi eta argitara eman zituen. Eta ilobentzat eta herriko haurrentzat idatzitako beste asko ere izango dira hark utzitako papere-aren artean, Xabierrek noiz begiratuko ote dituen zain.

60ko hamarraldiko lehen urteetan, edota 1978ko maiatzean kantatzeari utzita gero herriko parro- kian egin zuen lanaren aipamena egitea ere zilegi bekigu azkenik, azal-azaletik eta laburki bederen. Besteak beste direla, erdaldunen korua antolatu zuen parro- kian, herriko haur eta helduei eliza-kantuak erakutsi eta gero elizkizunetan kantatzen lagunduz. Horrez gainera, igande eta jaiero 12:30etako liturgia ere berak zuzendu ohi zuen, hileta eguneko hitzaldian Jose Maria Setien gotzain jaunak esker onez aitortu zuenez.

Donostiako eritegi batean egin zituen azkenengo hamar-hamabost egun, bihotzak edo gorputz osoak huts eginda. Baina heriotza gainean zuela oharturik, «lasai-lasai, bare-bare hil duk, batere sufrimendurik gabe», esan zigun Xabier Lete lagun estimatuak. Hala ere, hil aurretik eskabide hauxe egin zion: «Nekatuta nago eta ni banoa, Xabier. Baina zuk



Udara hontan ez da
sekulan eguzkia aterako?
Lurdes Triunfo

Beti lanerako prest. Eguna 1987.07.23

segi aurrera. Zer esan eder asko daukazu eta segi idazten, Xabier». Horixe esanez itzali zen euskal kantagintza berriaren izarrik distiratsu eta ederrena, 2005eko abenduaren 27an, 68 urterekin.

Eskerrik asko, Lourdes!

Handi eta txiki, hamahiru-hamalau disko egin zituen Lourdesek, batzuetan bakarka eta besteetan Xabier Leterekin batera. Lehenengo grabazioak Bartzelonan egin zituen, 1967an; eta azkenengoak, Donostian, 1982an. Baina azkenengo hiru-lau LPak bereziki haurrentzat egin nahi izan zituen, haiexek ziren-eta betiko bere kutunak.

Horiez gainera, Loiolako Herri Irratian aukera paregabea izan genuen, eta gu bai pribilegiatuak izan ginela! Eskatu genien bakoitzean, Lourdes eta Xabier beti eskura izan genituen, beren kantak grabatzeko erraztasun osoa emanez, 1965eko maiatzean hasi eta 78an Galarretan eman zuen jaialdi haren

ostean ofizialki erretiratu zen arte. Irratian nahiz herrietako jaialdietan, hamaika saio grabatu ahal izan genuen, inolako baldintzarik eta eskakizunik gabe.

Horrexegatik, eta betidanik izan dugun adiskidantza ederragatik, eskerrik asko, Lourdes eta Xabier maiteoi. Berandu bederen, mila eta milaka esker! Eta itxaropenez gogoratuko dugu hainbat kanta eder, eta amets egingo zuk egin zenuen bezala:

Bainan gauetz amets egiten det
bihar goizez mundua hobea
izango dela.

Gizonen gau beltzean, pake,
itxaropen eta maitasun berri bat,
bai, piztuko direla.



Eskerrik asko, bihotzez:

Lehenengo, Xabier Leteri, Lourdesen ahizpa Pilar eta Anjelesi, Iñaki Aranzadi eta Bartolome Auzmendi
jaunei

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2006ko iraila
Ale-kopurua:	2.100
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2454-1 (Lan osoarena) 84-457-2457-6
L.G.:	BI - 1850-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística